

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Markos Gabilondo Irala

*Bergara,
Gipuzkoa
(1942)*

Aurkibidea



Biografia



18 urtetatik Usondo baserrian bizitakoa eta aurretik aldameneko etxean, Etxetxikin. Ama bertakoa zen eta aita, berriz, Elosukoa. Zortzi anai-arrebatan zazpigarrena, San Pedroko eskoletan ibili zen. Doktrina Santa Marinaran egin zuen, euskaraz. 14 urterekin, Torunza lantegian hasi zen lanean. 17-18 urterekin klandestinitatean lanak egiten hasi zen: langile mugimenduan eta MK alderdian. Juventudes Parroquiales taldean ere ibili zen, gazteentzat jarduerak antolatzen, besteak beste euskalgintzari lotuta. ERNAI antzerki taldekoa izan zen eta Kultur Ekintza (Promoción Cultural) taldekoa, eta baita Aranzadi ikastolaren sortzaileetako bat ere. Laboratorium museoan egindako elkarrizketa, Bergarako euskararen historia soziala jasotzeko.

Zintak

BER-376

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2023-02-17
- **Iraupena:** 101 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Bergarako Usondo baserrikoa

- **Erref:** BER-376/002
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Ama Usondo baserrikoa zen eta aita Elosukoa. Zortzi anai-arrebetatik Markos 7.ena da. Eskola Nazionaletan ibili zen.</p>

2. Elizen arabera herria banatuta; Santa Marina eliza

- **Erref:** BER-376/004
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:04:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

San Tarsicio Bergaran. San Pedron eta Santa Marinako bederatziurrenak. Bergara bi zatitan banatzen zen elizen arabera. San Marinako abadea Pedro Garitanaoa.

3. Eskolan izan ezik, dena euskaraz

- **Erref:** BER-376/005
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:04:28. **Bukatu:** 00:07:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Dotrina eta jaunartzea Santa Marinan egin zituen. Euskaraz izaten ziren. Etxean ere euskaraz egiten zuten baina eskolan dena gaztelaniaz. Euskaraz hitz egiteagatik zigortuak izaten ziren eta behin gurasoak kexatzera joan ziren.</p>

4. Eskolatik falangeko lokaletara eramaten zituzten

- **Erref:** BER-376/006
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:07:11. **Bukatu:** 00:09:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Eskolatik Falangera joaten ziren, antolatzen zituzten ekintzengatik. Hitzaldi politikoak ere ematen zituzten baina ez zuten kasu handiegirik egiten. Batzokian antzerki-emanaldiak egoten ziren.

5. Eskolan "Cara al Sol"

- **Erref:** BER-376/007
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:09:09. **Bukatu:** 00:11:03

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolara sartu aurretik egunero bandera igo eta "Cara al Sol" abesten zuten. Maisuekin gaztelaniaz egin behar zuten baina ikasleen artean batzuetan euskaraz ere. Eskolatik kanpo ia beti euskaraz.

6. Auzo ezberdinen arteko pikeak, jolasak...

- **Erref:** BER-376/008
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:11:03. **Bukatu:** 00:12:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Modan jarri zen gaztelaniaz hitz egitea, baita baserritarren artean kalera jeisten zirenean. Baserritarrei burlak egiten zizkieten haur batzuek baina berari ez, kale-baserrikoa zelako. Beste auzoetako umeeekin "gerran" jolasten ibiltzen ziren, harriak botatzen.

7. Usondo nolakoa zen

- **Erref:** BER-376/009
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:12:38. **Bukatu:** 00:13:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Usondo baserriaren inguruak nolakoak ziren.

8. Elementalera edo lanera

- **Erref:** BER-376/010
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:13:17. **Bukatu:** 00:14:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Eskola bukatzean, Torunza lantegian lanean hasi zen baina klase partikularretara ere joaten zen. Elementalera joaten ez zirenak lanean hasten ziren.

9. Asanblada klandestinoak mendian

- **Erref:** BER-376/011
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:14:18. **Bukatu:** 00:17:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Soldaduskan zegoela hasi zen klandestinitatean orriak idazten. Gero herrian kopiak egiten zituzten eta kaletik botatzen zituzten. Lan eta gizarte-baldintzak salatzen zituzten gehienbat baina bazeuden beste talde batzuk ere. Asanbladak mendian egiten zituzten.

10. Lantegietan papeletak banatzen; grebak

- **Erref:** BER-376/012
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:17:22. **Bukatu:** 00:19:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Sindikatu bertikala zen sindikatu ofizial bakarra. Comisiones Obreras-en ibiltzen zen Markos. Grebak.

11. Furrier baten funtzioa

- **Erref:** BER-376/013
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:19:06. **Bukatu:** 00:21:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Lagun gehienek soldaduska Afrikan egin zuten baina Markosek Donostian. Furrier bat zer den eta zer egiten zuen kontatzen du.

12. Bergarako Juventudes Parroquiales

- **Erref:** BER-376/016
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:22:37. **Bukatu:** 00:23:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Juventudes Parroquiales-en talde ezberdinak zeuden. Euskal kulturaren alde lan egiten zuten, euskaraz irakurri, euskal musikariak Bergarara eraman...

13. Gau eskolak Bergaran; Ernai antzerki-taldea

- **Erref:** BER-376/018
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:23:52. **Bukatu:** 00:26:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Elementalean hasi ziren lehenengo gau-eskolak antolatzen Bergaran. Josu Oregi, Juste Amenabar, Maria Txantxote, Txomin Amasorrain... Txomin Ernai antzerki-taldeko zuzendaria ere bazen. Elementaletik Maria Lagundiara aldatu ziren gau-eskolak. Ernai antzerki-taldea.</p>

14. Bergarako Juventudes-en sorrera eta ekintzak

- **Erref:** BER-376/020
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:26:34. **Bukatu:** 00:29:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Begarako Juventudes Parroquialesen sorrera elizaren inguruan egin zen, gazteek elkartzeko leku bat izateko. Markosek sorreran parte hartu zuen baina gero soldaduskara joan zen. Juven-en zer egiten zuten. Euskarazko ekimenak.

15. Juventudes-en beherakadaren arrazoiak

- **Erref:** BER-376/021
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:29:05. **Bukatu:** 00:30:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Juventudes-en giro euskalduna zen nagusi. Urteetara politikarekin nahasten hasi zen, alderdi ezberdineko jendea zegoenez liskar-politikoak sortzen ziren, drogaren arazoa pil-pilean zegoen kide batzuen artean, berankortasuna tabernan...

16. Juventudes-ek Olentzeroa, jaiotza-biziduna eta kabalgata

- **Erref:** BER-376/022

- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:30:47. **Bukatu:** 00:34:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

<p>Juventudes-ekoek Olentzeroa ateratzen zuten kaletik, oraindik ere frankismo garaian. Jaiotza-bizidun bat antolatzen zuten, Errege eguneko kabalgata... Jaiotza-biziduna nolakoa zen. Jantzi gehienak mojak egiten zituzten, Accion Catolicak, herriko jendeak... Olentzero ateratzen zutenean eta Pazkoa garaiko estanpak egiten zituztenean, Juste Amenabar eta Maria Txantxoterren laguntza izaten zuten beti.</p>

17. Bergarako liburu eta disko azoka Seminarixoko arkupeetan

- **Erref:** BER-376/024
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:34:04. **Bukatu:** 00:35:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Bost bat urtetan Seminarixoko arkupeetan liburu eta disko azoka antolatzen zuten Juventudes-ekoek. Durangon azoka hasita zegoen eta bertatik ekartzen zituzten mahaiak eta liburuak lortzeko laguntza.

18. Juventud-en kontzertuak: Pantxoa eta Peioa, Ez Dok Amaitu, Oskarbi...

- **Erref:** BER-376/025
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:35:34. **Bukatu:** 00:38:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Juventudes-ek Pantxoa eta Peio Bergarara eramatea lortu zuen. Kanten letrek zentsura pasa behar zuten eta Txatxi Etxeberria arduratzen zen hortaz. Udaletxeko baimena Angel Azkaratek lortzen zien. Juventudes-ek Bergaran antolatuta beste hainbat kontzertu: Ez Dok Amairu, Oskarbi, Benito Lertxundi, Gorka Knörr...

19. Iparraldetik ezkutuan liburuak, diskoak, ikurriña... ekartzen

- **Erref:** BER-376/027
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:39:39. **Bukatu:** 00:41:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Politika eta Franco](#)

Laburpena:

Juventudes-etik Iparraldera irteerak egiten zituzten eta handik diskoak, liburuak eta behar zutena ekartzen zuten, autobusean ezkatuta. Guardia Zibila autobusera igotzen zenean, gauzak aurkituz gero errekitatu egiten zituen.

20. Juventudes-eko egoitza

- **Erref:** BER-376/029
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:41:38. **Bukatu:** 00:42:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Aisia](#) » [Kultura](#) » [Herrigintza eta elkarteak](#)
- [Herria, azpiegitura](#) » [Herri-antolaketa](#) » [Eraikuntzak eta azpiegiturak](#)

Laburpena:

Juventudes-eko egoitza Konbenio kalean zegoen. Eraikin berdinean kasinoa zegoen, ikastolako lehenengo egoitza 3. pisuan egon zen, Pol-Pol-aren taberna eta egoitza...

21. Ikastolaren sorrera Bergaran

- **Erref:** BER-376/030
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:42:56. **Bukatu:** 00:43:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Euskara eta politika](#)
- [Ohiturak eta bizimodua](#) » [Hezkuntza](#) » [Maisu-maistrak](#)

Laburpena:

Ikastolaren sorrera Bergaran. Konbenio kalean zegoen, 3. pisuan. Bi andereño zeuden eta bat Izaskun Jimeno zen.

22. Bergarako ikastola eta Don Pablo abadea

- **Erref:** BER-376/032
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:45:34. **Bukatu:** 00:48:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Euskara eta politika](#)
- [Ohiturak eta bizimodua](#) » [Erljioa](#) » [Elizarekin lotutako pertsonak](#)

Laburpena:

<p>Hasiara batean, Konbenio kaleko ikastolan bi andereño bakarrik zeuden. Ikastolaren antolakuntzaz Juste Amenabar, Txomin Amasorrain, Don Pablo... arduratzen ziren. Don Pablo San Pedroko abadea zen. Ikastolaren inguruan guraso talde bat sortu zen.</p>

23. Ikastolen Federazioko bilerak

- **Erref:** BER-376/035
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:50:52. **Bukatu:** 00:52:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikastolen Federazioko bi bileretan parte hartu zuen Markosek. Juventudes-eko egoitzan egiten zituzten.

24. Ikastolako diruzaina

- **Erref:** BER-376/036
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:52:11. **Bukatu:** 00:53:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Bergarako ikastolako diruzaina izan zen bi urtez. Orduan ikastola Seminarixuan zegoen eta bost andereño zeuden lanean.

25. Mugimendu komunistakoak 'espainolizatatzat' hartuak

- **Erref:** BER-376/037
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:53:28. **Bukatu:** 00:54:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Komunistak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>Langile-mugimenduan sartuta zegoen Markos, komunistak zen eta Mugimendu Komunistako (EMK)-ko militante. EMK-koak 'espainolizatatzat' jotzen zituzten.</p>

26. Bergarako ikastolaren sorrera: erregistroa

- **Erref:** BER-376/038
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:54:19. **Bukatu:** 00:56:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Ikastola sortu aurretik euskarazko akademia bat zegoen Bergaran. Ikastola handitzen joan zenean, akademiakoekin elkartu ziren. Koldo Eleizalde izenarekin joan behar ziren ikastola erregistratzera, baina fitxatuta zegoenez, Aranzadi ipini zioten izena.</p>

27. Ikastolatik Eskola Publikora

- **Erref:** BER-376/040
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:57:02. **Bukatu:** 00:58:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Bergaran lehenengo kilometroak ospatu zirenean Markos ez zegoen Ikastolako kudeaketan sartuta. Taldetik atera zuten ez zelako guraso eta MK-ko kidea zelako. kilometroak ospatu zirenean, Eskola Publikoaren sorrera eta garapenean parte hartzen zuen.

28. Eskola Publikoa euskalduntzen

- **Erref:** BER-376/041
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:58:40. **Bukatu:** 00:59:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Euskal Eskola Publikoaren alde lan egin du. Eskola Publikoa euskalduntzearen alde borrokatu du.

29. Ernai antzerki-taldea: Txomin Amasorrain eta Juste Amenabar

- **Erref:** BER-376/043
- **Iraupena:** 0:04:27. **Hasi:** 01:00:21. **Bukatu:** 01:04:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Antzerki-talde batzuk euskarazko antzezlanak egiten zituzten. Bergarako Ernai antzerki-taldean antzeztzen zuen Markosek eta zuzendaria Txomin Amasorrain zen. Berak itzultzen zituen gaztelaniazko obrak euskarara. Konbenio kaleko eraikineko 3. pisuan egiten zituzten entseguak. Juste Amenabarrek antzerki-taldearen dekorazioak, arropak... kudeatzen zituen. Jose Alvarezek Justeri laguntzen zion eszenatokia atontzen, muntatzen...</p>

30. Ernai antzerki-taldeak ia egunero entseatzen zuen

- **Erref:** BER-376/044
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:04:48. **Bukatu:** 01:06:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Ernai antzerki-taldean talde nahiko handia sortu zuten eta ia egunero entseatzen zuten, iluntzean. Lau obra antzeztu zituzten: Maritxu Alargun, Argi izpi bat, Itto ala ezkondu eta Ordua lapurra...

31. Ernai antzerki-taldea: emanaldiak

- **Erref:** BER-376/047
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:08:02. **Bukatu:** 01:09:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Zaldibarko jardunaldietan parte hartu zuen Ernai antzerki-taldeak. Bergaratik kanpo ere emanaldi asko eman zituzten: Donostian, Soroluzen, Goizuetan...

32. Bergarako Juventudes-eko artxiboa

- **Erref:** BER-376/049
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:10:10. **Bukatu:** 01:12:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Juventudes-eko antzerki-taldean ez zen ibili Markos. Gipuzkoako gainerako elkarteak itxi egin ziren baina Bergarakoak gehiago irautea lortu zuen. Markosen Juventudes-eko artxiboa gordeta dauka.

33. Mugimendu Komunistako kidea

- **Erref:** BER-376/051
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:13:28. **Bukatu:** 01:15:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Komunistak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

MK (Mugimendu Komunista)-ko kidea zen Markos . Bilerak tabernetan, mendian, kotxe barruetan... egiten zituzten. Propaganda sortu eta kaletik botatzen zuten. Jende asko zegoen lekuetan banatzen zuten.

34. 70. hamarkadako giro politikoa

- **Erref:** BER-376/052
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 01:15:36. **Bukatu:** 01:16:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

70. hamarkadako giro politiko nahasiari buruz hitz egiten du. Mugimendu politikoen artean konpetentzia handia zegoen. Grisen aurrean korrika ibili dira hainbat manifestazioetan. Barrikadak.

35. 1965eko Aberri Eguna Bergaran; Alkateen Mugimendua

- **Erref:** BER-376/053
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 01:16:20. **Bukatu:** 01:17:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

1965ean Bergaran Aberri Eguna antolatu zen. Markos soldaduskan zegoen baina egun hartan Bergarara bueltatu bazen ere, ezkutuan ibili behar izan zuen. Alkateen Mugimendua gertutik ezagutu zuen, Jose Luis Elkoro alkate egin nahi zutenekoa.

36. Ikurrina udaletxean jarri zuten eguna

- **Erref:** BER-376/054
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 01:17:29. **Bukatu:** 01:18:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

1977an udaletxean ikurrina ipini zutenean, Markos plazan zegoen ere.

37. Bergarako Alkartu Nahi elkarteak

- **Erref:** BER-376/057
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 01:20:38. **Bukatu:** 01:23:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

1967-1968an Juventudes-ek euskararen alfabetatzerako hiru eguneko ikastaro bat antolatu zuen. Alkartu Nahi elkartearen sorrera, Promoción Cultural, UNED... Alkartu Nahi elkartearen ekimenak.

38. Urretxindorrek eta Ameslariak taldeak

- **Erref:** BER-376/059
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:24:48. **Bukatu:** 01:26:21

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Txomin Amasorrain-ek Urretxindorrek eta Ameslariak taldeekin harreman zuzena zuen, letrak sortzen, euskalduntzen... Musikazalea da Markos.

39. Pol-pol mendi elkartea

- **Erref:** BER-376/060
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:26:21. **Bukatu:** 01:27:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Pol-Pol mendi elkartean batzordean ere ibili zen soldaduskatik bueltatu zenean. Euskal giroa egoten zen, irteeretara beraiek egindako kaikuekin jantzita joaten ziren, abestu egiten zuten...

40. Tabernetan beti abestu egiten zen

- **Erref:** BER-376/061
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:27:53. **Bukatu:** 01:28:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Garai batean tabernetan ez zen musikarik egoten eta jendeak asko abesten zuen.

41. Komite Internazionalistak

- **Erref:** BER-376/062
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 01:28:48. **Bukatu:** 01:32:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Komite Internazionalistetan jardun du denbora luzez. Nola hasi zen eta zer egiten zuten. Askotan egon da Nikaraguan, Kuban, Bolivian, Saharan... SOS Racismo taldean ere ibili da kanpaina ezberdinetan. Komite Internazionalistan 70. hamarkadan hasi zen lankidetzan.

42. Lagunekin beti hika

- **Erref:** BER-376/067

- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 01:38:20. **Bukatu:** 01:39:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Euskaraz hitz egiteko ohitura jendearen araberakoa da. Lagunekin hika egiten du.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com